



## AKTEA/04

**BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA**  
**(2025-02-04)**

<b>Batzarraren izaera:</b>	Ohikoa
<b>Deialdia</b>	1. deialdia
<b>Data:</b>	2025-02-04 (Asteartea)
<b>Lekua:</b>	Udaletxe historikoko Osoko Bilkurako areto nagusia
<b>Hasiera-ordua:</b>	08:32
<b>Amaiera-ordua:</b>	08:36
<b>Alkate-Presidentea:</b>	NEMEH SHOMALY NADIA
<b>Batzordekideak:</b>	ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA URIARTE ANASAGASTI VICTOR ORTUZAR BUTRON XABIER GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE CARUEZO UGALDE MAITE
<b>Bertaratu ez direnak:</b>	
<b>Idazkaria:</b>	URIARTE LEJARRAGA JURDANA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E9001220E600Q9M0E0H2S2M3

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -  
13/02/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 13/02/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/02/2025  
12:19:04

DOCUMENTO: 20251188070

Datea: 13/02/2025  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



## Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2025-01-28 TGB (03)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Y8603262-B NAN zenbakidunari Lokalbide dirulaguntza esleitzea eta ordaintzea onartzea.
- 4.- 72738277-H NAN zenbakidunari Lokalbide 2024 dirulaguntza esleitzea eta ordaintzea onartzea.
- 5.- BIDEBIETA FP-LH ikastetxearekin hezkuntza lankidetzarako hitzarmena sinatzea onartzea.
- 6.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 7.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaietara heldu diete. Eraitza honakoa izan da:

### 1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2025-01-28 TGB (03)

Bertaratutako batzarkideek 2025eko urtarrilaren 28ko 03/2025 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

### 2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

### 3.- Y8603262-B NAN ZENBAKIDUNARI LOKALBIDE DIRULAGUNTZA ESLEITZEA ETA

2



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E9001220E600Q9M0E0H2S2M3

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 13/02/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 13/02/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/02/2025 12:19:04

DOCUMENTO: 20251188070

Data: 13/02/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E9001220E600Q9M0E0H2S2M3



**ORDAINTZEA ONARTZEA.****Xedea**

Lokalbide programa 2024 dala eta, Y8603262B NAN zenbakidun J.S. de D.V.L.jaunak birgaitzerako egindako dirulaguntza eskabidearen ebazpena.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: Lokalbide programaren, Bermeoko alde zaharrea jarduera barik dauden lokal hutsen erabilera bultzatzeko dirulaguntzaren deialdia 2024ko abuztuaren 12an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Bigarrena: 2024ko azaroaren 14an, 25ean eta abenduaren 16an, Y8603262B NAN zenbakidun J.S. de D.V.L jaunak Lokalbide programan parte hartzeko ekintzaileen eskaera-orria eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu dauz. Alokairuaren datuak:

HELBIDEA: Doniene 2 kalea behea

JARDUERA EKONOMIKOA: Marketing digitaleko agentzia

Hirugarrena: 2024ko abenduaren 18an Behargintzako teknikariak udal dirulaguntzen justifikazioari buruzko txostena (0 fasea) egin du.

Laugarrena: 2025eko urtarrilaren 14an Kontu hartzaileak aldeko fiskalizazio txostena egin du, hurrengo oharrekin:

BDNS-ari dirulaguntzaren informazioa helarazi behar zaio.

**Argudioak**

Lehenengoa: Ekintzaileak 8. artikuluan agertzen den moduan dokumentazioa aurkeztu dau.

Bigarrena: Ekintzaileak 9. artikuluan agertzen den moduan ordainketa esleipenarekin egingo da.

Hirugarrena: Kreditua dago 2024-01000-43300-471.00.02 Lokalbide programa aurrekontu partidan.

Laugarrena: Y8603262B ANA zenbakidun J.S. de D.V.L jaunak egindako eskabidea aztertu da eta era egokian aurkeztu da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E9001220E600Q9M0E0H2S2M3

**Sinadurea eta data**  
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 13/02/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 13/02/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/02/2025 12:19:04

DOCUMENTO: 20251188070  
Data: 13/02/2025  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



**Bosgarrena:** Erabakia hartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri legearen 21.1. artikulua b), f) eta r) atalen arabera, alkatearen ahalmenekoa da, baina 2024ko apirilaren 24ko 1886 zenbakidun Alkatetza Dekretu onartutako delegazioen eta diru-laguntzaren oinarri arautzaileen arabera, Tokiko Gobernu Batzarrari jagoko.

### **Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

**LEHENENGOA:** Y8603262B NAN zenbakidun J.S. de D.V.L jaunak Lokalbide dirulaguntza esleitzea eta 1.500 € ordaintzea.

**BIGARRENA:** Berualari, Diruzaintza Sailari eta Kontabilitate Sailari erabaki honen berri ematea.

**HIRUGARRENA:** Erabakia dirulaguntzen base nazionalen argitaratzeko agindua ematea Merkataritza, Sustapen eta Turismo Sailari.

**LAUGARRENA:** Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

## **4.- 72738277-H NAN ZENBAKIDUNARI LOKALBIDE 2024 DIRULAGUNTZA ESLEITZEA ETA ORDAINTZEA ONARTZEA.**

### **Xedea**

Lokalbide programa 2024 dala eta, 72738277-H NAN zenbakidun S.G.S. andreak alokairurako egindako dirulaguntza eskabidearen ebazpena.

### **Aurrekariak**

**Lehenengoa:** Lokalbide programaren, Bermeoko alde zaharrea jarduera barik dauden lokal hutsen erabilera bultzatzeko dirulaguntzaren deialdia 2024ko abuztuaren 12an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**Bigarrena:** 2024ko urriaren 10ean eta 14ean, 72738277-H NAN zenbakidun S.G.S. andreak Lokalbide programan parte hartzeko ekintzaileen eskaera-orria eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu dauz. Alokairuaren datuak:



#### **Sinadurea eta data**



HELBIDEA: Irakaskintza kalea 7 behea

JARDUERA EKONOMIKOA: okintza, pastelgintza eta konfiteriaren txikizkako merkataritza.

Hirugarrena: Diruz lagunduko den epea 2024ko irallak 15etik – 2025eko irailak 15era arte izango da.

Laugarrena: 2025eko urtarrilaren 24an Kontu hartzaileak aldeko fiskalizazio txostena egin du, hurrengo oharrekin:

- a) BDNS-ari dirulaguntzaren informazioa helarazi behar zaio.
- b) Instrukzio-organoaren txostena dago kontzesioa proposatuz baina bertan ez da adierazten organo horren eskura dagoen informazioaren arabera, onuradunak dirulaguntzak jasotzeko betekizun guztiak betetzen dituztenaren adierazpena.

### Argudioak

Lehenengoa: Ekintzaileak 6. artikuluan agertzen den moduan dokumentazioa aurkeztu dau.

Bigarrena: Kreditua dago 2024-01000-43300-471.00.02 Lokalbide programa aurrekontu partidan.

Hirugarrena: 72738277- H NAN zenbakidun S.G.S. andreak egindako eskabidea aztertu da eta era egokian aurkeztu da.

Laugarrena: Dirulaguntzaren onuradunak dirulaguntza justifikatu beharko dau oinarrien 10. artikuluan zehazten den moduan.

Bosgarrena: Erabakia hartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri legearen 21.1. artikuluen b), f) eta r) atalen arabera, alkatearen ahalmenekoa da, baina 2024ko apirilaren 24ko 1886 zenbakidun Alkatetza Dekretuan onartutako delegazioen eta diru-laguntzaren oinarri arautzaileen arabera, Tokiko Gobernu Batzarrari jagoko.

### Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:



#### Sinadurea eta data



LEHENENGOA: 72738277-H NAN zenbakidun S.G.S. andreari Lokalbide dirulaguntza esleitzea 3.600 €, eta 1.800 € aurreratzea.

BIGARRENA: Interesdunari erabakiaren barri ematea eta 10. artikuluari jarraituz justifikazioa egin behar duela ohartaraztea.

HIRUGARRENA: Berualari, Diruzaintza Sailari eta Kontabilitate Sailari erabaki honen berri ematea.

LAUGARRENA: Erabakia dirulaguntzen base nazionalen argitaratzeko agindua ematea Merkataritza, Sustapen eta Turismo Sailari.

BOSGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

## 5.- BIDEBIETA FP-LH IKASTETXEAREKIN HEZKUNTZA LANKIDETZARAKO HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.

### Xedea

BIDEBIETA FP-LH ikastetxearekin hezkuntza lankidetzarako hitzarmena sinatzea, administrazio eta kudeaketa heziketa zikloko ikasleen praktikaldia.

### Aurrekariak

Bakarra: Lankidetzaren hitzarmen honen bidez ikasleei praktikak egiteko aukera ematen zaie eta Bermeoko Udalak, ahal duen heinean, horrelako praktikak egiteko aukera ematea interesgarri ikusten du, formakuntza egokia lortzeko beharrezkoa baita.

### Argudioak

Lehenengoa: Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legeak, honakoa xedatzen du bere 5. artikuluan:

“Para el cumplimiento de sus fines y en el ámbito de sus respectivas competencias, las Entidades Locales, de acuerdo con la Constitución y las leyes, tendrán plena capacidad jurídica para adquirir, poseer, reivindicar, permutar, gravar o enajenar toda clase de bienes, celebrar contratos, establecer y explotar obras o servicios públicos, obligarse, interponer recursos establecidos y ejercitar las acciones previstas en las leyes”.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E9001220E600Q9M0E0H2S2M3

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 13/02/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 13/02/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/02/2025 12:19:04

DOCUMENTO: 20251188070  
Data: 13/02/2025  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unida: Erregistro nagusia



Bigarrena: Eskumenen gainean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak, bere

17. artikuluan, honakoa dio:

“1.– Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: (...)

1. Babes zibila, emergentziak, eta suteen prebentzioa eta itzaltzea antolatzea eta kudeatzea.
2. Espazio publikoetan bizikidetzeta-harremanak antolatzea eta kudeatzea.
3. Titulartasun publikoko zerbitzu, ekipamendu, azpiegitura eta instalazioen erabilera antolatzea eta kudeatzea.
4. Udaltzaingoa, trafikoa, bide-segurtasuna eta ibilgailuen aparkalekuak antolatzea eta kudeatzea, eta herritarren segurtasunean laguntzea.
5. Espazio publikoetan eta konkurrentzia publikoko leku eta establezimenduetan antolatutako ekintzetako segurtasuna antolatzea eta kudeatzea.
6. Konpainiako animalien eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien arloa antolatzea eta kudeatzea.
7. Etxebizitzaren plangintza, programazioa eta kudeaketa.
8. Ingurumenaren babesa eta garapen jasangarria modu osagarrian antolatzea, sustatzea, kudeatzea eta defendatzea, hiriguneetan kutsadura akustikoa, argiaren kutsadura eta airearen kutsaduraren aurkako babesa barne hartuta.
9. Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina.
10. Osasun publikoa sustatzea, kudeatzea, defendatzea eta babestea.
11. Erabiltzaile eta kontsumitzaileen defentsa eta babesa antolatzea eta kudeatzea.
12. Hilerrien eta hileta-zerbitzuen antolamendua, plangintza eta kudeaketa, baita osasun arloko kontrola ere.
13. Gizarte-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea.
14. Diru-sarreraren bermea eta gizarteratzea antolatzea, programatzea eta kudeatzea.
15. Zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea hiri-erabilerako uraren ziklo integralean. Honako hauek daude barne hartuta: uraren goi-



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E9001220E600Q9M0E0H2S2M3

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 13/02/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 13/02/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/02/2025 12:19:04

DOCUMENTO: 20251188070  
Data: 13/02/2025  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



- hornidura; uraren behe-hornidura; saneamendua edo biztanleguneetako hondakin-uren eta euri-uren bilketa, eta hiriko hondakin-uren arazketa.
16. Argiteria publikoa, bide-garbiketa, biztanle-guneetako sarbideak, kale-zoladura eta parkeak eta lorategiak antolatzea eta kudeatzea, eta zerbitzu horiek ematea.
  17. Udal-hondakinak edo hiri-hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea, eta hondakin gutxiago sortzeko plangintza, programazioa eta diziplina ezartzea.
  18. Bidaia-erien hiri barruko garraio publikoa garraiobidea edozein dela antolatzea, planifikatzea, programatzea, kudeatzea eta sustatzea, eta horien inguruko diziplina ezartzea, betiere garraioa udal-erriaren barruan egiten bada osorik.
  19. Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea.
  20. Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.
  21. Udal-ondare historikoa babestea eta kontserbatzea, eta babes-plan bereziak eta katalogoak egitea eta onartzea.
  22. Tokiko turismoa sustatzea eta kudeatzea.
  23. Irakaskuntzaren programazioa egiten eta derrigorrezko eskolatzeko-aldia betetzeko zaintzan parte hartzea, bai eta haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta hezkuntza bereziko ikastetxe publikoen eraikinak kontserbatzea, mantentzea eta zaintzea ere. Era berean, hezkuntza-administrazioari laguntzea, ikastetxe publiko berriak egiteko behar dituen orubeak aurkitzen.
  24. Zerbitzu-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
  25. Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo -politikak.
  26. Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera.
  27. Genero-berdintasunaren eta ekitatea sustatzearen arloko politikak antolatzea eta kudeatzea.
  28. Udal-ondarea kudeatzea eta ondare horren erabilera, zertarakoa, kontserbazioa eta mantentze-lana arautzea, betiere foru-araudiarekin bat.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E9001220E600Q9M0E0H2S2M3

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 13/02/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 13/02/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/02/2025 12:19:04

DOCUMENTO: 20251188070

Fecha: 13/02/2025  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia





29. Hondartza, laku eta mendietan egiten diren jarduerak eta erabilerak antolatzea, kudeatzea eta zaintzea, arlo horretan lurralde historikoek dituzten eskumenak eragotzi gabe. Hondartzetarako sarbideak antolatzea eta haien garbiketa-zerbitzua ematea.
30. Herritarren partaidetza, gardentasuna, gobernu ona bultzatzeko eta teknologia berriak eskueran izateko azpiegiturak antolatzea eta kudeatzea. Administrazio elektronikoa, prozesuen arrazionalizazioa eta sinplifikazioa. Batez ere, herritarrek informazioaren teknologiak eta komunikazioak modu efiziente eta jasangarrian erabil ditzaten bultzatuko dute, beren udal-mugaratean.
31. Udalerrriarenak diren herri barruko bide publikoak eta baserri-bideak antolatzea eta kudeatzea (kontserbatzea eta mantentzea barne).
32. Udalerriko bideetan, pertsona, ibilgailu motordun zein bestelako eta animalien mugikortasuna eta irisgarritasuna nahiz pertsona eta salgaien garraioa antolatzea, kudeatzea, sustatzea eta diziplina-modua zehaztea; horretarako, beharrezko iritzitako baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak jarri ahal izango dituzte.
33. Establezimendu publikoak eta jolas-jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
34. Barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Zehatzago esanda, merkatu, hornidura-merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Hor sartzen dira, era berean, txikizkako merkataritza eta merkataritzako ekipamendu handiak planifikatzea eta antolatzea, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzoruaren arazoizko erabilerari erantzunez, bai eta ibilgailuak eta bestelako salgaiak espazio publikoetan salerostearen erregulatzea, ikuskatzea eta arlo horretako zehapen-ahalmena.
35. Immigrazio alorrean gizarteratze-politikak kudeatzea, atzerritartasunaren inguruko legeriarekin bat etorrira eta erakunde autonomikoekin lankidetzan.
36. Gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.
37. Garapenerako lankidetzaren alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.”

**Hirugarrena:** Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen duen 40/2015 Legean hitzarmenei ezarritako baldintzak betetzen dira.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E9001220E600Q9M0E0H2S2M3

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 13/02/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 13/02/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/02/2025 12:19:04

DOCUMENTO: 20251188070

Fecha: 13/02/2025  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidea:  
Erregistro nagusia



Laugarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legearen 21.1.s) artikuluan jasotakoaren arabera, hitzarmena sinatzeko ahalmena alkateari dagokio, ez dagoelako beste organo bateri emonda, baina 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu Batzarrarengan dago delegatuta. Onarpen hau hitzarmena sinatu aurretik egin behar da.

### **Erabakia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: X.M.I. ikaslearen, 79366420-K NAN zenbakidunaren, eskaria onartzea:

- *Hasiera data: 2025eko otsailak 21*
- *Bukaera data: 2025eko ekainak 4*
- *Praktikaldiko orduak: 420 ordu*
- *Saila: Urigintza Saila*

BIGARRENA: BIDEBIETA FP-LH ikastetxearen eta Bermeoko Udalaren arteko hezkuntza-lankidetzaren hitzarmena onartzea.

HIRUGARRENA: Urigintza Sailari eta Berrikuntza, Gobernu Irekia eta Herritarren Arreta Sailari erabaki honen berri ematea.

LAUGARRENA: Interesdunari erabakia jakinaraztea.

### **6.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.**

Ez da ezer adierazi.

### **7.- ESKARI ETA ITAUNAK**

Ez da egon eskari eta itaunik.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E9001220E600Q9M0E0H2S2M3

**Sinadurea eta data**  
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 13/02/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 13/02/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/02/2025 12:19:04

DOCUMENTO: 20251188070  
Data: 13/02/2025  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



Eta aztertzeke gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidaturakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

Bermeoko Udalaren bilkura hau ikus-entzunezko euskarrian grabatu da "20250204\_BERMEO.mp4" izeneko dokumentu digitalean, "2025eko otsailaren 4ko Tokiko Gobernu Batzarra" aktari dagokionean. Akta hori udal-sistema informatikoan gordetzen da, eta haren osotasuna eta egiazkotasuna bermatuta geratzen dira bilkuraren administrazio-espeditente elektronikoari erantsitako dokumentu elektronikoaren bidez, Eta ondorengo Osotasun Kodearekin (SHA-256):

345f786e98faa5f2c83badbfc4c287386f4c02965d0913d6fb5b554c0161f47c

Euskarri horretan jasota daude bilkuraren eguneroko eztabaidetan parte hartu duten zinegotzien eztabaidak eta bozketak.

Akta hau eskuragarri egongo da hurrengo helbide honetako atari pribatuan: <https://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/pribatua/>

*Orrri oinean sinatzaileak eta datak*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E9001220E600Q9M0E0H2S2M3

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 13/02/2025  
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 13/02/2025  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/02/2025 12:19:04

DOCUMENTO: 20251188070

Fecha: 13/02/2025  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaada:  
Erregistro nagusia

